

KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazio kanalei dagokionez, gaur egun bezero gehienei guri buruz jakinarazteko edo haiengana iristeko modu errazena eta merkeena, argi dago internet bidez dela. Izan ere, biztanleriaren ehuneko gehienak sare sozialak edo interneta erabiltzen ditu. Ondorioz, modu honekin oso urruti iritsi daiteke gure informazioa.

Lehen aipatu bezala, guk hainbat sareetan egingo dugu kontua. Konkreteki: Tik Tok, Instagram, Twitter eta Facebook. Sare sozial hauetan link bat publikatuko dugu, bertan klik egin eta zuzenean gure webgunera eramaten duena, horrela gurekin harremanetan jarri ahal izateko. Honetaz gain, sareetan gure informazioa ezarriko dugu, baina ez oso sakonean, kartel erakargarri bat egingo dugu, bezeroei kuriositatea sartzeko.

Kartelaren diseinuak ondorengo ezaugarriak izango ditu: Erakargarria izango da, mezu bat transmitituko du, argia eta zuzena, bestalde, oso koloreduna izango da, izan ere, modu honetan atentzio gehiago deituko du.

Sareak albo batean utziz, gure hazkundearekin jarraituz, zenbait bidaia agentziekin, albaiteriekin, maskoten dendekin, aldizkari edota webguneekin kontaktatuko dugu, gure informazioa zabal dezaten, noski, beti ere gure lan munduarekin zer ikusia izan behar dute, horregatik hautatu ditugu aipatutako haiek. Modu honetan, hazkunde geografiko bat lortuaz eta bezeroen dibertsitatea handituaz. Hauei, lehen azaldutako kartela emango diegu bezeroei iristeko.

Bukatzeko, gure webgunea ere sortuko dugu. Edozein zalantza edo interes badituzte bertan argitzeko eta noski, gure telefono zenbakia ere bertan ageriko da, gurekin kontaktatu nahi ezker deitzeko. Webgunean, guri buruz jakin nahiko luketen guztia topatuko zuketena, eta lehen azaldu bezala, zerbait argi geratu ezean, bertan gurekin kontaktatu eta azalduko genioke. Edo bestela, zuzeneko chat bat ere egongo da, deitu eta hartzen ez badugu, bertan idazteko eta gurekin hitz egiteko.

BANAKETA ETA SALMENTA KANALA:

- 1. Online webgunea:** Gure zerbitzua helarazteko online egingo dugu lan. Hau da, bitartekaritza lan egingo dugu. Bestela esanda, maskotak zaintzeko pertsonen beharra duten eta hauek zaintzeko prest dauden bezeroen arteko “zubiak” izango gara. Hauek gurekin harremanetan jarri nahi ezker, online webgunearen bidez egin beharko dute. Bertan informazio ugari lortu dezakete, baina ezingo dute beste bezeroekin kontaktatu edota bidaia planeatu aplikazioa instalatu arte.

2. **App storen gure aplikazioa deskargatuz:** Gure informazioa sare sozialetan publikatuko dugunez, bertan *App Storen*, *Play Storen*, etab. gure aplikazioa instalatzeko sarbidea jarriko diegu, bertan informazio guztia eta gurekin komunikatzeko aukera izango dituzte. Horrela, bidaia planeatzen hasi eta beste bezeroekin harremanetan jarri daitezke. Aplikazio bidez ez ezik, ezingo lukete bidaia antolatu ezta ezertxoerez egin, informazioa ikusteaz eta gurekin kontaktatzeaz gain.
3. **Aldizkarietan QR kodea:** Zenbait aldizkarietan (beterinarietakoan esaterako), gure publizitatea egingo dugunez, bezeroek, gure online enpresara sarbide zuzena izateko QR kodea jarriko dugu behealdean. Horrela, kodigo hura deskargatu eta berehala irekiko zaie aplikazioa. Bertan, guri buruz informazio guztia edukiko dute, eta edozein zalantza izan ezkerro, gurekin komunikatzeko aukera ere izango lukete. QR kodigoa, sarbide zuzen bat da azken finean.